



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Suaren froga**

Egilea / Autor: **Patri Urkizu**

Saila / Colección: Narratiba, 133

ISBN / EAN: 978-84-9109-726-6

Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orrri kopurua / Nº páginas: 258

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 23 x 15 cm

Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos

Lana / La obra

Irakurleak esku artean daukan historia tragiko hau Gipuzkoako herri txiki batean, Zerainen, hasten da, hor jaio baitzen gure protagonista, Joanes Lopez Zeraingoa, zehazki 1488an, eta Granadan bukatu ziren haren egunak, 1530ean, Inkisizioaren suan erreta, luterano kutsuko liburu batzuk idazteagatik.

Autoreak, Joanes Lopez Zeraingoaren bizitzaren gorabeherak ikertu ondoren, beste pasarte batzuk asmatzen ditu koherentziaz eta garai hartan txertatuak. Gainera, enkontruak eta solasaldiak asmatzen ditu gure pertsonaiaren garaikide batzuekin (Desiderio Erasmo, Martin Azpilikuetakoa, Inazio Loiolako, Migel Egiako, Luis Vives, eta beste askorekin...). Gizadiarentzat hain erabakigarria izan zen argiz eta ilunez betetako Errenazimenduko garaian murgiltzen laguntzen digu Patri Urkizuk bere irudimenari leku eginez eta gureari atek zabalduz.

Egilea / El autor

Patri Urkizu (Lezo 1946). Filologia Erromanikoan lizentziatu zen Salamancako Unibertsitatean (1970), non, besteak beste, Fernando Lázaro eta Koldo Mitxelena izan zituen irakasle. Azken honen zuzenduta, Euskal Filologian doktore gradua lortu zuen *Pierre d'Urteren hiztegia. Londres 1715* tesiarekin (1986). Euskara eta euskal literaturaren irakasle izan da Errenteriako eta Donostiako Institutuetan lehenik, EUTGn, Bordeaux III Michel de Montaignen gero, eta Madrileko UNEDen. Euskal teatroaz eta bertsozaintzaz saiakera ugari idatzi ditu.

Sorkuntzan ere aritu da, nahiz poesian nahiz narratiban. Narrazio liburuen artean, batzuk: *Sekulorun sekulotan* (1975), *Nola Kursaal berria suntsitu zen* (1984), *Etsipenez* (1984), *Zoazte hemendik* (1995), *Idiakes kasuaren kronika* (2021), *Kordobako desterrutik* (2021), eta *Joan Sebastian Elcano, Primus circumdedisti me* (2021)... Azken hirurok www.patriurkizu.eus webgunean irakur daitezke.



9 788491 097266